

Agustin Zubikarai, antzerkilari

EUJENIO AROZENA

Agustin Zubikarai Bedialauneta, Ondarruan jaioa 1914. Urteko Azaroaren 3an.

A. Zubikarairen deskribapena hitz bitan egiteko esaldi hau erabiliko nuke: "Gizatasuna, xularme guzietatik ateratzen zaio eta 'Gizatasunaren' lurrinarekin lagun hurkoa bustitzen du".

Augustinen lana zabala da, ez dakit jorratu gabeko alorrik duen.

Antzerki alorrari dagokion kreazioez arituko gara hauek gehien landu dituenak izanik. Lan hauetan herrikoitasuna hertsiki erantsia du, ez bait du alferrik A. Zubikaraik herriaren kiratsa arnastu eta itsasoaren kresala xurgatu.

A. Zubikarairen antzerki kreazioaren zerrenda, hau da:

- | | |
|------------------------------|---|
| 1. ABERRIAGAZ BIZI | Euskadí |
| 2. AINGIRA KUMAK | EGAN 1-3-1969 |
| 3. ARITZ ITZAL | Helduentzako |
| 4. ARRAIN SUNDA | Bizkaiko Foru Aldundia 1987 |
| 6. ARTEAKO ITSUA | Bizkaiko Foru Aldundia 1987 |
| 7. ATAKO BANDAN | |
| 8. ATXURIKO MILAGRUA | Kirikiñorena, antzerkirako egokitua. Kirikiñon omen egunak Iraku Sail 1970 Santurtziko Udala 1984 |
| 9. BIZI GARRATZA | |
| 10. DON PERU | |
| 11. ETXEARI AGUR | |
| 12. GERNIKA ARITZ AURREAN | |
| 13. GIZON ON ETA ANDRE ERRE? | 1967 Toribio Alzaga Saria |
| 14. GORRI TAZURI | Bizkaiko Foru Aldundia 1987 |

- | | |
|--------------------------------|------------------------------------|
| 15. GUREA | EGAN. 1992 |
| 16. H.OPOKOAH | |
| 17. IJITOAK ETANI | Bizkaiko Foru Aldundia 1987 |
| 18. IKAS-MIKAS | Euskarazaintza-25 Antzerki Labor |
| 19. ILLOBEAREN INDARRA | Euzkadi |
| 20. IRU ALABA | 1963 Toribio Alzaga Saria |
| 21. IRUGARREN ADINEAN | ZIMUR-ZIMELAK bezela ezagutua ere |
| | Bizkaiko Foru Aldundia 1987 |
| | "Euskadi" |
| 22. ITXAS LAPURRAK | |
| 23. ITXAS ERTZEKO ITSU MUTILLA | |
| 24. ITXASORA | Miarritzen saritua 1949 |
| | EGAN 3-6-1960 |
| 25. JAUNAREN BIDETAN | EGAN 5-6-1959 |
| 26. KIRRIXKAK | |
| 27. KRESALETAN | Antzerti-1991. |
| 28. LURRUNPEAN | Bizkaiko Foru Aldundia 1987. |
| | EGAN 1-3 eta 4-6- 1978 |
| 29. LOIOLAKO SEMEA | |
| 30. MARIÑELAK | Antzerti 1991 |
| 31. MARTIN ITSUKI | |
| 32. MENDI TA ITXASO | Antzerti-62/1983, |
| | Markinako Lore Jokoetan |
| | Lehen Saria |
| 33. MENDU ZAHARRAK | IrakurSail 1969. |
| | Toribio Alzaga Saria. |
| 34. NI NAIZ KAPITAN PILOTU | |
| 35. ORBEL ETA ORRI | |
| 36. SALIÑA SALIÑA | |
| 37. SANTA CLARAREN EGUNEAN | Euskarazaintza-25 Antzerki Labor. |
| 38. SEASKA INGURUAN | EGAN 3-4 1957/1956an |
| | Donostian saritua |
| 39. TOSTA GAÑEAN | Euskarazaintza- 25 Antzerki Labor. |
| 40. UMETAKO KEZKAK | |
| 41. URRUZUNOREN UMOREZ | Urruzunoren omenaldiko |
| 42. ZURITAGORRI | |
| 43. ZURRUKUTUN | |

A. Zubikarai jaunaren antzerkiak arrakastatsuak izan ziren eta bereiziki 57-67. urteetan. Hamarkada honetan. Ondarruko antzerki taldeak beste antzerki obren artean, oso arrakastatsuak izan ziren A. Zubikarai jaunaren lau antzerki obra antzestu zituen: KRESALETAN, MARIÑELAK, JAUNAREN BIDETAN eta SEASKA INGURUAN.

Hamarkada honen ondorengo belaunaldiarentzat atsegin-garriak zitzaizkigun 1970 urtean Irakur Sailek argitaratutako BIZI GARRATZA eta MENDU ZAHARRAK antzerki lanak.

Momentu hartan euskal antzerkiarentzat berritze boladaren esperantza etorri zitzaigun, hara Letek, hitzaurrean zer zioen:

"Zubikaraik badu halako erreztasun bat bere obren pertsonaiak eszenan ezartzeko, definitzeko eta mugitzeko. Era klasikoan planteatzen du bakoitzaren zer esana eta zer ikusia, baina errez erabiltzen du gaia eta pultso sendoarekin eramaten ditu aurrera, berak ezarri nahi dien papera ondo beteaz. Dialogoak elkar-hizketak, guztiz trebeak eta pizkorrak dira; abildade haundiarekin mintza arazten ditu bere pertsonaiak, era herrikoiean gainera herrikoikerietan erori gabe; naiz eta batzuetan, noizik behin, dialogoaren bizkortasuna eta bizitasun horrek berak hizkuntzaren aldetikako "barrokotasun"pittin bat enbazogarria sortzen bada ere".

A. Zubikarai antzerkilaria da. Eta hau kontutan izan behar dugu; honekin adierazi nahi dut ez dela antzerki idazle soil bat. A. Zubikaraik antzerki obrak taularatzen daki eta honek ematen dio idazleari katramila askoren giltza. Lehenago aipatu hamarkada horretako ondarrutarren antzerki taularatzearen ardura eraman zuen.

A. Zubikarairen antzerkiak badu berezitasun bat aipagarria dena eta behar bada antzerki taldeak zuzendua izana litzateke. Antzerki lanari egitura propia aurkitzen dio murgiltzen den giroaren arabera. Hor ditugu lekuko: SEASKA INGLIRUAN, JAUNAREN BIDETAN, MARIÑELAK eta KRESALETAN irudietan osatutako antzerkiak. Hara nola Zubikaraik baditu irakurle ezberdinei begira idatzitako obrak:

Gaztetxoentzako hamarren bat antzerki obra ere aurki ditzakegu.

ZIMUR-ZIMELAK antzerkia hirugarren adinean oinarritzen da, eta egoera horretan ez gaudenontzat zer pentsatua ematen digu. ZIMUR-ZIMELAK bi ekitaldiko obra dramatikoa da. Zubikarai jaunak antzerki honi egitura berezia ematen dio; alde batetik hirugarren adinean daudenentzat malkoetako drama bihurtuko

da baina bestalde antzerki obra honek adierazpen berezia egiten digu oraindik adin egoera horretara iritxi ez garenoi. Antzerkiaren haseran ahots batek oraitarazten digu antzerkian gaudela eta honek ipintzen digu distantziatzko antzerki motaren aurrean.

ZIMUR-ZIMELAK antzerkia honela hasten da:

ABOTSA. Bizitzak, urtearen antzera, bere udaberria eta udazkena dauka. Bere uda eta bere negua.

Eta neguak, beste aroaren antzera, giroari dagokion zati andi bat dauka.

Bere eurite ta txingorte, bere eguzki-arte eta bare aldi. Ipar beltz, aize berde eta kalma zuri egunak.

Urte aroak eta bizitza, nortasun berdinetatik duaz.

Bildur dautse neguari.

Eta negua, illuna da bai, zelan gertu ala artu.

Neguak batzuk okertu egiten ditu ta besteak jatortu.

Batzuk zortu ta besteak amets barrietara sortu.

Negu illuna itxaropen leioa dala esaten da

Zelako itxaropena eta negu otzak berotuten dauana?

Gertu ete da gure gizataldea, bizitzako negua bizi al izateko?

Etxeko sukaldearen epelak drogatuta euki ete ditu gure zarrak?

Edo ta gazteak galdu egin ete dabe gizaldien gizaldietan etxeko su inguruan epelduten zan gizonaren udazkeneko bizi aria?

Bardintuten ete dabe gaurko zartzaroko egoitz askoren egokitasunak, familiko su ondoko ke eta txingar arteko apaltasun otsenik? Etxean ete dago maitasunaren oea, abia eta atsedena eta... alan esan ezker, maitasunaren eztea, edo etxetako erleak ezti obeagorik egin ete leike bazterretan?

Aiskide: Ez zaitex ikusi emengo irudietan. Baiña pentsatu, gaur ez zareana, orrelako bizi irudi bat izan zeinkeala.

Bizitza, umetan eta zartzaroan, olgeta da, iribarre baiño garraztasun geiagoz.

Gaztetan eta mardul giroan, kezka eta naigabea, zoro-tasuna batzuen artean.

Naigabe ori zartzarora ba daroagu, itxaropenak ez dauka berderik, ez dauka ametsik.

Eta gizonak, bizitzan, ametsik bako arnasa, arnas gai-xoa dau.

Aurrera goaz. Eta kalean bizi zarean orreri, zementu eta asfaltoen manpeko orreri, dei degitsut: Ator, ator mutil familira... Bide barrietan gabiltz.

Gaurko kezka ikusi ta biarko oiñarritzen ikasi.

Bestalde drama historikoak ere idatzi ditu hara nola: ARTEA-KO ITSUA, LOIOLAKO SEMEA eta GERNIKA ARITZ AURREAN. Azken hau hitz neurtuetan idatzia. Antzerki laburrak ere idatzi ditu. A. Zubikarairen zaletasuna antzerki mota honi buruz Ondarruako Kultur Etxearen laguntzarekin prestatu zuen sariketan ikus dezakegu. Gainera sariketa horretan parte hartu zuten egileen hamar antzerki lantxo agertzen diren 1981 urtean argitaratutako BANAKA... BINAKA liburutxoan Zubikarairen itzala nabari daiteke.

Hiru ekitaldiko seiren bat drama luze ditu. Bainan kontaketan gehiago jarraitu gabe A. Zubikaraik bere antzerki sorpen guziari bi dohain iraukor ematen dizkio: Alde batetik antzerkia taularatzen dakiela eta idazten dituen antzerkiak erraz taularatu daitezkeela eta hau ez da iritzi bat berak ederki frogatu baitigu bere antzerki zailenak izando direnak: KRESALA, MARIÑELA, JAU-NAREN BIDETAN eta SEASKA INGURUAN hamarkada honetan arrakastatsuki taularatuak izan bait ziran. Aipatu beharra dago urte honetako Urriaren azken egunetan eta Azaroaren lehenetan A. Zubikairi, Ondarruako herriak eskainiko dion omenaldi barruan KRESALA antzerki obra berriro Ondarrutarrak taularatu zutela.

Bestalde, gizonengan duen sinismena, antzerki lan guzietan aurkitzen diot esperantzaren argitxoa eta hau bere neurrian eskaintzen bada ondo dago. Honi buruz Aristotelek zera zioen:

"Antzerki idazlearen zer egina ez da gertakizunak nolatan gertatu ziren kontatzea, baizik eta gertakizunak nolatan gertatu behar zuten o posible zen gertatzea, kontatzea baizik".

Egile honen antzerki obrak aipatutako argitxo horrentzako kriseilua dira, eta argitxok apal-apal irauten du honela behar bada hau izango da gure A. Zubikarairen lan guztien legamia.

GEHIGARRIA bezela X. Letek A. Zubiakarairi buruz egindako MENDU ZAHARREKO hitzaurrean esaten zuena orain hogeitau urte gaur egun idatzia balitz bezala har genezake:

"Eztut gehiago jarraitu nahi. Hemendik aurrera irakurleak ikusi eta aztertu behar du. Bainan, amaitu baino lehen, azken aipamen bat. Zubikarai, bere alde on eta txarrekin, osotasun eta hutsegiteekin, teatroa serioski hartu duen gizona izan da. Hortik dator bere ekintzearen baliotasuna eta horregatik da bere lana estimagarria. Publikorik gabe eta girorik gabe hainbeste urteetan lana hain serio eta segian egin duen gizonak, gure estimazio osoa eta esker ona merezi du.

Gutxi dira, Eukal Herrian, berak eskeini duen haina eskeini duenik".

Urria eta Azaroan eskaini dioten omenaldia ondo merezia, izan du, eta hemendik aurrera bere lanak ezagutuak izan daitezela opa diot bihotzez Oiartzungo herritik.

GUREA

IRU ZATITAN

AGUSTIN ZUBIKARAI

GUREAA. Zubikarairen antzerki obra hau 1991. urtean idatzia izan da. Hiru ekitaldian antolatutako obra dramatiko da.

Gaia, gauregunean pil-pilean dagoena da: Amen umetokiaren alogera.

GUREA antzerkia lehenik 1991. urtean irakurri nuen eta orain berriro irakurri dut, bietan sentrazio berdina izan dut, *GUREA*ko pertsonaiak klimax dramatikoaren eragin beharrean, denboraren amaierak pertsonaiak habaitzen ditu eta zurrunbiloaren nahasketan pertsonaiak klimax fiktizioan erortzen dira.

Irudigilleak:

ANES.- Adiñeko gizon bat.

LUKI 30 urte inguruko senar emazteak.

LIBE

ZORI.- Pilotu gaztea.

KAPI.- Itxasontziko kapitana, gizon mardula.

BEGO,- Itxasontzian dabillen gaixo zaiña.

Irudia: Itxasoan, atsedean eta atsegin osterak egiten diardun
itxasontzi apain eta andi batena.

Lenengo ekintzan, "Kubiarta" gaiñean.

Bigarreanean: Barruko kamaiña (kamarote) baten.

Azkenean: Itxasontziko gaixotokian.

Giroa: Gure egunetakoa.

L E N E N G O E K I N T Z A

I R U D I A

A N E S T A L U K I

(Itxasontzi baten gaiñean, kubiertan, itxasoari begira, denpora pasa, kontu kontari).

ANES.- Zegaitik maite dozu ainbestean itxasoa?

LUKI.- Gatz bakorik ez dodalako ezer be maite.

ANES.- Ori baserritar eta artzaiñen erantzuna da.

LUKI.- Nik ez daukat ez zimaur ez ardi learusainik.

ANES.- Dana dala. Sasi filosofariena. Albotiko erantzuna. Eta gatz geiegiak ez zaitu atzeratzen?

LUKI.- Txistua gatz puntuan ipini, besterik ez.

ANES.- Edo gatz larritu.

LUKI.- Neurria norberak artu bear. Ez dakizu? Sardiñarik onenak gatz lodiagaz laban erreta egoten dira. Barbariñik koipe-tsuenak be bai.

ANES.- Betikora zoaz. Sabelera.

LUKI.- Sabelera ez, egira.

ANES.- Eta naigo dozu egaz egin baiño igarian ibili?

LUKI.- Milla bidar naiago.

ANES.- Albokoak, adiskide eta lagunak izorratuta be?

LUKI.- Nik ez dakit komeni dana eta bear dodana besterik izorratzen.

ANES.- *(Zirikalari)* Emaztea bakarrik.

LUKI.- EZ zaite akulari. Eta berbak zeatz, garbi erabilten ikasi.

ANES.- Berbak garbi eta aragia lizun? Ez da joko bardiña.

LUKI.- Emaztea izorratzea ez da sekula zuk pentsaten dozuna. Jakin? Emaztea izorratzea, gaur, birtutea da. Egin bear

dana. Oraingo giroan bagoaz, laster Estatu Berberak saritu egin bearko dau emezteak izorratzea.

ANES.- Besterik ez dogu bear.

LUKI.- Gero datoz buruausteak eta diabrukeriak.

ANES.- Ez dautsut ulertzen.

LUKI.- Gero dator, esan nai dot, kontzientzia bere ardurekin. Gero, aur galtzeak, eta kanporatu naiak eta abar. Or dago kukua, ta ez izorratzean. Izorratzea gizontasuna da eta maitasuna be bai.

ANES.-Zelan da kantu zarra? "Ez neban uste Aitunen semek esaten zuela gezurrik" edo orrelako zerbait ez?

LUKI,- Ba! Erdika edo motel, orrelako itxura emon lei. Baiña ez oraingo onetan.

Eta? Nun dago or iñor arritu eta lotsatzeko esaerarik?

Andre bat izor lagatea, edo nai ba dozu izorratzea, aurdun lagatea da, seindun. Eta zer da norbereagaz egin bear dana, familia osotu nai ba da? Ez al da ori era batera, erriaren on izate eta bizitasunean pentsatea?

ANES.- Zu piperrari be esnea ataratera gertuten zara.

LUKI.- Erakusten eta jaten. Bietara. Miña bai beintzat.

ANES.- Lengora jota. Ainbeste egun itxasoan, ontzi baten, ez zaragogaituten?

LUKI.- Osasungarri da. Origaitik artu dodaz opor bereziak eta itxasora etorri.

ANES.- Ni lanean baiño geiago eteten naz.

LUKI.- Baiña ordainduta zatoz.

ANES.- Bai. Eta egazkiñari bildurra dautsadalako.

LUKI.- Baita.

ANES.-Lantegitik erbestera bialtzen nabe tekniku lez. Tekniku paperetan, morroi izatez.

LUKI.- Ondo dakizu langille batzuk ez dirala morroiak.

ANES.- Gure amak esaten ekian, morroiak bizarra urten arteko mutillak bakarrik izan bear litzakezala.

LUKI.- Eta baserrietan ibiltzen diran mutilzarrak ez dauke bizarrik?

ANES.- Kentzeko denporarik be ez areik.

LUKI.- (*Arnas luzea artuaz*) Esan benetan, ez jatsu atsegin iodoz betetako giro au?

ANES.- Emoidazu niri lurra.

LUKI.- Autsa, likiña ta tukurra.

ANES.- Orretara itxasoa be ez beti urdin.

LUKI.- Itxasoak atsegiñez jokutzen daki kolorekin.

ANES.- Erromantiku uts zara.

LUKI.- Erromantiku ni? Izadiaren begirale besterik ez. Ba dakizu zelan deitzen eusten mutil kozkondu nitzala?

ANES.- Erri txikitán edozer.

LUKi.-Traganarru.

ANES.- Zer da ori? Arraiñen bat?

LUKI.- Bai zera.

ANES.- Bale edo antxinakoen izaberetako bat?

LUKI,- Ez dakizu zer dan? Udan, itxas ertzetik sarri ikusten dan gertaera edo fenomenu bat.

Ara: Odeiak larrituta lez ikusiko dozuz alkarren gainean batzen, eta gitxien uste danean, odei artean alako aizeko gorakako tengada arrigarria, itxasoko urak gora jasoten. Zu zeu be artegatu egindo ziñake Tranagarru baten aurrean, orrelako ikuskizunean, alako indar egarri zorodunez konturatzean.

ANES,- Antxiñako jentillen ipuiña sartu daustazu.

LUKI.- Ez diñotsut gaur be gertatu eta ikusi egiten dala? Zoragarri.

ANES.-Batzuntzat.

LUKI.- Alaxe dalako.

ANES.- Leorretik ikusteko izango da.

LUKI.- Edonundik.

ANES.- Gu, orain lez, itxasoan gertatuta zer?

LUKI.-Bere azpian txaloparik andiena be estu erabiliko leuke.

ANES.- Eskerrak au txalupa baiño andiago dala.

LUKI.- Andiago zan Titanic.

ANES.- Ez egidazu bildurrik sartu. A ez zan gorako joan, ondora baiño.

LUKI,- Ni aidean baiño ziurrago ibilten naz emen. Eta batez be atsegiñago. Itxas urak ondartzza egaletan kiriok baretzen ditun lez, esan neike itxas lurrun onek osasuna sartzen dauala.Begira izurdak, or aurrean.

ANES.- Nun? Ez dodaz ikusten.

LUKI.- Nora begira? Beti batera? Or, aurre-aurrean, saltari, jola-seann lez. Ikusten ez? Arrain txikien sundaz ibiliko dira, euren kazan.

ANES.- Nun baiña?

LUKI.- Laster agertuko dira. Ara, ara! Barriro be agertuko dira, asko urrundu barik.

ANES.- Kapitanaren puentean be ibiliko dira izurde edo arrain gaiztoen batzuk, ziurretik. Len ikusi dodaz iru-lau.

LUKI.- Izurdeak?

ANES. Edo neska arraiñak.

LUKI.- Zure ametsetan bai. Kapitanak ez al dau euren lotsarik?

ANES.- Etxean bai eta itxasoan jai.

LUKI,- Esanak ez artu izantzat.

ANES.- Zure emaztea dator.

LUKI.- Bai? Denporalea gaiñean. Ai ene, gauzak ez dagoz ondo.

II IRUDIA

ANES, LUKI ta LIBE

LIBE.- *(Asarre eta urduri dator, kiriotsu. Beretik urtenda lez).* Andrea artu, zetarako? Kamarotean giltzapean gordeta eukiteko? Zuek aize leunetan, Jainkoak jakin zelako kontuetan...

LUKI,- (*Garratz*) Gu bai, gu ixilleko eta eskutuko autu eta kontuetan.

LIBE.-Guzurrak kontaten. Iñoren aitzakiak billatu eta aizetzen, ziurretik.

LUKI.-EZ zenkien? Kaleko andren kontuak berdetzen. Ori jakin nai?

LIBE.- Onezkero esan be egingo eutsun zegaitik etorri garean, ez?

ANES.- Ez dakit nora zoazen.

LIBE.- Mundu guztiak daki. Eta ez nik esanda.

LUKL- Berbetan asi aurretik baretu zaite.

LIBE.- Lau urte dira ezkondu ginala, eta agirian dagona, ezin se-merik ekarri.

ANES.- Ez zarie zuek bakarrik.

LIBE.- Gu bai beiñik-bein. Eta gauzak aldatzeko, berera etorteko, giroa aldatzea ei da ona. Ara emen, itxasoan. Zetarako?

LUKI.- Ixildu zaite, mesedez, Libe. Familiko goraberak eskutukoak dira lurrean eta itxasoan.

LIBE.- Ezkutukoak. Origaitik nakazu giltzapean kamarotean.

LUKI.- Nik andrea giltzapean kamarotean?

LIBE.- Bai, zure andrea, zure emaztea, giltzapean kamarotean. Entzun? Atsegiñeko ibillaldi batera eninduzun gonbidatu?

LUKI,- Galerrenen bat sortzeko gogoia daukazu? Kamarotean gelditu ba zara zure gurari eta atsegiñez ízango zan.

LIBE.- Noren atsegiñez?

LUKI.- Lotan edo lo konkorrean ikusi zaitut.

LIBE.- Bazkalondoko kopeo ondorengo lo zorroan, ez?

LUKI.- Ez dot olakorik esan.

LIBE.- Esatea beste. Mozkortuta. Iñoiz ez eta gaur.

LUKI.- Ala nai ba dozu, leikena da.

LIBE,- Eta gero zuk atea itxi kanpotik.

LUKI.- Ez dakit zer diñozun.

LIBE.- Edo jakin nai ez.

LUKI.- Txotxin berbarik ez egizu esan.

LIBE.- Txotxiña deitu gaiñera.

LUKI.- Irakiten lagaten dozue bat eta edozer erantzuteko eran.

LIBE.- Eskerrikasko.

LUKI.- Aizea artu daigun, barruko beroak kentzeko. Anes, mese-dea, ekarri egidazu kamarotetik chester pakete bate.

ANES.- Zegaitik argi esan ez, emendik alde egiteko?

LUKI.- Olakarik ez dot pentsatu. Bizimodua ikusteko aukerra bat dozu.

LIBE.-Arillari eragiten?

ANES.- Giltza, mesedez.

LUKI.- Nik ez daukat.

LIBE.- Ez daukazula?

LUKI.- Beste txamarran itxi dot.

LIBE.- Eta atea zeñek itxi dau giltzean?

LUKI.- Nik ez beiñik bein. Zelan, giltzik barik?

LIBE.- *{Kezkauteri}* eta beste iñok euki lei giltzik?

LUKI.- EZ leuke euki bear.

LIBE.- Orretaran gure gelan iñor dabil?

LUKI.- Ez litzake ibili bear.

LIBE.- Ez dot ametsik egin. Ziurra da, ziurra da atea giltzez itxia egon dala *{Luki'ri lepotik oratutá}* Oi Luki! Parkatu! Pentsatu bear neban zuk ez zendula egingo olakorik.

LUKL- Orainarte ez beintzat.

LIBE.- Pentsatu bear neban...

LUKI.- Iñor mindu aurretik pentsatu ba zendu, lotsa geiagoz itz egingo zendun.

LIBE.- Ezin, baiña. Bat batekoa izan da. Ez nazu ulertzen. Bakarrik ikusi naz, kartzelan lez. Ikaratuta, bakarrik egotean.

LUKI.- Ez zara ba makala izan, bakarrik ibilten.

LIBE.- Itxasoan ez.

LUKI.- Zuk nai zendun nitxas oster a egitea.

LIBE.- Zeuri poza emotearren .

LUKL.- Osagilleak esana betetearren esan egizu.

LIBE.- Or zebiltzan tabarra emoten. Lau urte ezkondu eta azke-
nean lagunak be arrituta egozala umerik ez ekarteagaz.
Zein da erruduna?

LUKI.- Mesedez, Libe. Saguak ez dabe nai izaten iñok zulorik bi-
llatzerik.

LIBE.- Gero, itxas giroak mirariak egiten dauzala ta...

LUKL.- Mirari orde, itxasoko bakartadeak itto zaitu.

LIBE.- Itxasokoak ez. Kamarotekoak.

LUKI.- Eta beste zer geigo?

LIBE.- Zek.

LUKI.- Senarrak ez zaitu bete, ok eragin?

LIBE.- Zelako gauzak diñostazuz?

LUKI.- Urrengo baten argituko dautsudaz.

LIBE.- Oi! Nire zeloz beteta senar gaixoal.

LUKi.-Zigarrotxo bat?

LIBE.- Ene! eta nire boltsa?

LUKI.- Zetarako bear emen orrelako tresna?

LIBE.- EZ egoan gure arasan.

LUKI.- Zer zeunkan barruan ?

LIBE.- Giltzak eta pitxiak.

LUKI.- Zelan ekarri leikez itxasora pitxiak?

LIBE.- Ez al dira egiten emen ainbat jai, ondo jantzita joatea es-
katzen dabenak. Edo ta atsedeen egun baten errien bat
ikustera urteteen gaztekor? Giro aldatzea zer da? Itxas ai-
zea bakarrik?

LUKI.- Onezkero... Ez dakizu onelako itxasontzietan gantzeruak
ibiltzen dirala?

LIBE.- Itxasoan be lapurrak?

LUKI.- Sekula ez dozu entzun itxas lapurren konturik? Lapurrak,
itxasoan, neska arraiñak baiño geiago.

LIBE.- Ene! Zer egingo dogu?

AGUSTIN ZUBIKARAI

LUKI.- Guazen kapitanarengana.

ANES.- Kapitanarengana zetan?

LUKi.-Salatuten.

ANES.- Batetik bat, ez dau jakin be nai izango bere ontzian lapurrak ibili leikezanik.

LIBE.- Jakin nai izan ezarren, jakin eragin bear jako.

III IRUDIA

LENGOAK ta ZORI

LIBE,- (*Zori datorrela ikusita*) Ara emen kapitana.

ZORI.- Ni?

LIBE.- Ez al zara?

ZORI.- Pilotu eta kittu.

LIBE.- Parkatu, ez naz oartu galoietan.

ZORI.- (*Irriz*) Galoiak beso gaiñeko uleak ba dira, emen dagoz eta ugari. Besteak kamarotean itxi dodaz.

LIBE.- Orretarra zelan ezagutu nor zarean?

ZORI.- Serbitzutik libre nago. Orain ez naz iñor. Esan nai dodana, ez naz iñor, baiña ba naz no-nor.

ANES.- Zeuk dakizu zer diñozun.

ZORI.- Kanean ez dozue esaten, ba, pilotuak portu bakoitzean eta ontzi bakoitzean maitsaun bat eukiten dogula? Andrea edo neskatilla...

LIBE.- Kontuz, Andrea.

ZORI.- Liraiña beintzat

.LIBE.- Eskerrikasko, baiñaez aurrerajo. Nungoa, mundakarra?

ZORI,- Mandakatik nire errira ba dago bitartean ondarra.

LIBE.- Ibarrangeluko?

ZORI.- Ibarrangelu eta Artea erdiko.

LIBE.-Akorda'ko?

ZORI.- Bitarteko.

LIBE.- Bitartean ba dago ezer, ala?

ZORL- Nun lagaten dozu Kanala?

LIBE,- Ene ba da ta. Niri atsegin jatazan lez Kanala'ko ostrak atsegin izan da, gogoratu ez? Au burua, au. Izan be emen gertaten diranak gertatuta...

ZORI.- Zer?

LUKL- Libe, laga egiozu gizonari, edo mutillari, bere atsedeen ordua nasai artzen.

LIBE.- Igarri dautsut: mutilla.

ZORL- Mutilla ni? Eta geiago ez? Nok eroan etxean dagozan mutil biei opilla?

LIBE.- Eta emaztea?

ZORI.- Bere bidetikjoan zan.

LIBE.- Ene ba! II?

ZORI.- Kapitanen galoiak atsegiñago ebazan.

LIBE.- Parkatu.

ZORI.- Parkatu? Ez andrea.

LIBE.- Gizonak odol baltza eukiten dozue.

ZORL- Zer da ori?

LIBE.- Odol illa. Irrikirik barik edozer esatekoa.

ZORI.- Eta andrena zer da, odol errukiorra? Ba nirea umeekin be ez zan errukitu.

LIBE.- Zure pentsakera.

ZORI.- Irugarren bat ekarri ei eban ortik eta ba dauka zein igortzi.

LIBE.- Ortik? Nundik?

ZORI.- Nundik ekarten dira umeak? Nik aina jakingo dozu ta kitu. Eta ba nua... zirika alkarri lotsa galtzen asi baiño len. Ez pentsatu kapitainak eta pilotoak izaten gareala galaiak. Bestelako kalatxoriak be ezagutzen doguz portuetan eta itxasoetan. Itxasoan, uste izan ezarren, asko ikusi eta asko ikasten da. Neu beintzat lekuko. (*Zorijoaten da*).

IV IRUDIA

ANES LUKI ta LIBE

LIBE.- Batek ez daki barre egin edo errukia artu.

ANES.- Beretzako aña ba daki.

LUKI.- Kapitan eta piloto artean, mesedez, ez sartu.

LIBE.- Ikusten nire senarra txutxuka berari ekiteko eran?

ANES.- Entzuten diranak entzun eta zelan jokatu?

LUKI.- Iñor egon ete leike gaur berenez ziur?

LIBE.- Niretzat dator ori?

LUKI.- Zuretzat artu dozu?

LIBE.- Ori be bai? Ezpaian gaiñera?

LUKI.- Nok esan dau ezer?

LIBE.- Bekaizkor zu be?

LUKI,- Entzuten diranak entzun ondoren, ezin egon gor.

LIBE.- Eta esan, gaiñera, aurrez aurre esan?

LUKL- Sendituten dana aurrez aurre esatea noiz da kaltegarri?

LIBE.- Kaltegorri ez ba da be, mingarri bai. Jakin? Nire kamaro-
tera nua.

LUKi.-Zetan?

LIBE.- Obeto egongo naz an baketan.

LUKI,- Kapitanekin amesetan?

LIBE.- Testigu aurrean zerbaít entzun nai?

LUKI.- Esatekoak esan, garbi eta argi.

LIBE.- Eta gero? Otz ez dana bero?

LUKL- Atsegiñeko ibilleran gertaturiko maite-minduen erroman-
tzea ez da izango, ziurretík.

LIBE.- Atzipetuta ekarri ninduzun.

LUKI.- Atsegiñez bete nai eta atzipetu?

LIBE.- Zure atsegiñak errekaizetan etorri eta joaten dira.

LUKI.- Salaketa geiago?

LIBE.- Esatekoa esana dago.

LUKI.- Eta entzutekoa entzunda.

LIBE.- Aize freskoak arindu zaitzala. Ba nua.

LUKI.- Gorantziak kapitanari.

LIBE.- Nungo kapitanari? Zure adiskide izango da, ez nire.

LUKI.- Ikusten ba dozu... geitu nai neban.

LIBE.- Ez daukat ikusteko asmorik.

LUKI.- Eta atea zeiñek zabalduko giltzik ez ba dozu?

LIBE.- Denpora falta jatsu barrukoa atarateko. Sapua zara, sapua. Edo satorra. *{Libe joaten da}*.

V IRUDIA

ANES ta LUKI

LUKI.- Brixak urtenda dabil nire emaztea.

ANES.- Emakumeak alaiago dira, bakarrik, jokoan edo jolasean.

LUKL- Origaitik ez ziñan ezkondu?

ANES.- Egia esateko, oraindik ez dot ortarako ez gogorik artu ez ametsik egin. Pilotoarena gertatekotan...

LUKI.- Egia ete da gero?

ANES.- Ez eban asmatuko.

LUKL- Kendu beruna esanari. Oneik mapa-mundi zabala erabilten dakie.

ANES.- Itxastarrena jakiña da. Portu bakoitzean maitasun bat.

LUKI.- Ori guzurra da, Anes. Gazte ziñala zer egiten gendun guk? Eta gero, txakurra katean lez. Katean lotu edo katean ibili.

ANES.- Zure andrea geiago ez da gogoratu ez giltzekin, ez pitxiekkin.

LUKI.- Amesetan egingo eban.

ANES.- Eta giltzak?

LUKI.- Dakidanez, kapitanak kamarote guztietako giltzak eukiten dituez.

ANES.- Beste ñok ez?

LUKI.- Garbitzailleak bear ba da.

ANES.-Maiordomuak ziurrago.

LUKL.- Ala izango da, bai.

ANES.- Igarri dodanez emengo maiordomuak kapitanak baiño geiago agintzen dau.

LUKI.- Etxeetan be otseiñak ugazaba-andrak baiño geiago.

ANES.- Gurean ez.

DEIA.- *(Barrutik, megafonez, abotsa entzungo dá).*

Entzun , entzun...

Ontziko mariñelei eta bertako ibiltariei deia.

Nonbait bat ikusi da ontzitik uretaratzen. Ez dakigu jausi edo bere burua jaurti daben.

Gaiñean egon edo zabizenok, begiratu egizue, mesedez, itxas azalera eta zerbait ikusi edo igarri ezkerro, deitu bereala "puente"ra, al ba da batu daigun.

Eskerrikasko.

Barriro esango dogu: Ontziko mariñelei...

LUKI.- Niri begira?

ANES,- Andre bat izan da.

LUKI.- Nirea ez.

ANES.- Obe.

LLIKI.- Nirea kobardeegi da.

ANES,- Zorotasunen bat bitarteko, ziurretik.

LUKI.- Edo drogak. Batek ba dakil.

ANES Emen be drogak?

LUKI,- Zur ez ba zabiltz, zu zeu aukeratuko zaitue, zeuk ez daki-zula, zure tresnen artean, leorrera atarateko.

ANES.- Azken osterata baten, nire kamaroteko lagun bat baitu eben molla gaiñean ainka ipini orduko. Eta berak ez ekian ezer. Itxuraz bere maleta trukatu eutsen.

LUKI.-Argi ibili.

- ANES.- Lau begi be gitxi gertaten dira sarri.
- LUKI.- Asko dira itxasoa aukeratzen dabenak betiko eskutateko.
Itxasoa misterio utsa da.
- ANES.- Emakume bat izan ei da.
- LUKL.- Emakumei geiago zotin eragiten dautse bizitzako lotsak,
gizonei baiño.
- ANES.- Ez da ezer agiri. Beintzat ez da ezer igarten ur gaiñean.
- LUKI.- Gaitz da ikustea.
- ANES.- Zarra-zarran dabil itxasoa, goraberatan.
- LUKI.- Ikusi dauanak kapitanari jakin eragin, eta onek deia egin
ordurako, azterrena artzeko aiña bide egingo genduan.
- ANES.- Ba dirudi ontzia bira egiten diargula.
- LUKI.- Oiturazkoak diranak egingo dauz, baiña alperrik. Bizi-sal-
batzaille edo beste tresnen bategaz jausi edo bere soña
jaurti ba dau, leikena da azalean ibiltea. Bestela, aren
garbitokia, sinisteak siniste, itxas sakoneko ur gazituetan
egonga da.
- DEIA.- (*Barríro barruko deia entzungo dá*):
Entzun: Ardura eta arretaz, nonbait jausi zan ingurua ara-
katu dogu. Zoritxarrez azalean ez da ezer agiri. Itxasoeta-
ko Jaunak beragan artu dagiala zana zalakoa. Gure
eginbearra bete dogu. Aurrera guaz bidean. Iñok nor zan
ba daki jakin araso dagiala "puentean" bear dan agiria ja-
soteko. Eskerrikasko.

VI IRUDIA

LENGOAK ta ZORI

- ZORI.- (*Agertuaz*) Andrea?
- LUKL.- Ezer gertatu jako?
- ZORI.- Ez dot uste.
- ANES.- Ez zan bera izango.

ZORI.- Jende geiegi bizi gara gaur buruaustez beteta.

LUKI.- Bere billa zabiltz?

ZORL.- Onezkero emen egongo zalakoan etorri naz.

LUKI.-Barri txarrik ez da egongo.

ZORI.- Kapitanaren puentera joaten ikusi dot.

LUKI.- Orain ala len?

ZORI.- Ez kezkatu. Zeu zara senarra, ez? Nik ba dakit nire emazte zanak, niri adarrak erakutsiarren, olakorik egiteko adorerik ez eukala. Zureak be ez ziurretik.

LUKI.- Nor zan ba dakizu?

ZORI.- Oraindik ez gara konturatu. Onelako ostera baten gaitz izaten da, testiguren batek salatu edo agertu ezik, nor zan zeaztutea. Berreundaka gatoz, danok ezezagunak. Eta danetakua. Batzuk atsegiñez, besteak polizietatik igeska. Batzuk tratulariak, besteak ternikoak... *(Anes'eri)* Zu zeu be tekniku ez zara ba, Anes?

ANES.- Pilotu ala polizia zara?

ZORI.- Itxasontziko gidari baten zeregiña izan bear dau txalopako tarte eta zirkulo guztiak lez, darabillazan lagunak burutik beatzera ezagutzea, al danik zintzoen.

LUKI.- Galoi barik.

ZORI.- Obe da eta ardura gitxiago eskatzen da lagun arteko ezaupidea artzeko, galoiak eskegita lagatea, aidean erabili barik. Galoiak, batzutan, morroetu egiten gaitue ta bestetan agintari. Bata nai beste jende arterako lagun txarrik.

DEIA.- *(Megafonoz)*

Entzun, entzun...

Kapitanaren eskaria.

Luki, Libe'ren senarra, ainbat ariñen doiala bere kamaiñara. Ainbat ariñen.

Luki, Libe'ren senarra... Kapitanaren eskaria da.

LUKI.- Zeiñentzako da, niretzako?

ANES.- Libe'ren senarra ez zara ba?

LUKI.- Libe izan ete da ba uretara jausi dana? Libe! Libe!

ZORI.- Ez zaito orrela jarri, adiskide. A izatekotan, beste era batera billatuko zenduezan.

Beste zerbait gertatuko zan. Alegiñak egiñarren emen be ibiltzen dira sagutxuak...

LUKL- (Zurbil, ikarati eta keixu urtenaz). Igarten dautsuet. Esan nai ez da zabilte. Konturatzen naz. Esan nai ez da. Nire Libe izan eta da ba? Libe?

(Bizkor duá)

O/ALA.

BIGARREN EKINTZA

I IRUDIA

LUKI, ANES, ZORI, LIBE ta KAPI

LIBE.- Ume au emen dago.

LUKI,- Bai. Or dago. Ezin ukatu agirian dagonik.

LIBE.- Ez deritxazu gurea dala?

LUKI.- Gurea? Zelan?

LIBE.- Emen dagolako. Gure oean.

LUKI.- Baiña zuk ekarrita ez. Esan nai dautsut sortua ez.

LIBE,- Nik sortua ez. Ez dot ukatzen. Ez eta nik ekarria be. Baiña guretzat ekarrita bai. Kapitana testigu.

KAPL- Mesedez. Geldi geldi itz egin.

LIBE.- Agirian dagonik ezin ukatu. Ene! Au da ume polital.

KAPI.- Lenengo eskutukoak jakin bear dira.

LIBE.- Zuk ez ba dakizu Zori pilotoak jakingo dau.

ZORI.- Geldi! Kapitana dan tokian pilotoak ez dau berbarik.

KAPL- Nire berba esan dot. Eskutukoak jakin bear dirala lenen-
go.

LUKI.- Zelako eskutukoak?

KAPL- Eskutuan ez al dago emen gertatzen dan guztia?

LIBE.- Begira egiozu Luki. Gure itxura dauka.

LUKI.- Lore, zelako tratuetan zabiltz?

LIBE.-Alaba da gaiñera, guk nai genduna.

LUKI.- Guk ume bat gendun. Datorrena edo etorri zeinkeana.

LIBE,- Eta emen dago.

LUKI.- Ez zaitez zeuretik urten.

LIBE. Ukatu alaba nai genduna?

LUKL- Bardin alaba nai semea, Baiña au... au...

KAPI.- Emen clagonik ezin ukatu. Eta ezelako arrazturik barik,
gaiñera.

LIBE.- Baiña ez dozu ikusten erruki eske dagola?

KAPL.- Bai or dago, baiña senarrak diño berea ez dala.

LUKL.- Nik ez diñot nirea izaterik nai ez dodanik.

LIBE.- Zeuri be atsegin, ez al da ala? Gurea, ezta Luki?

KAPI.- (Loreri) Eta emen agertu da benetan?

LIBE.- Esan dautsut len be.

KAPL.- Eta ezelako agiri barik.

LIBE.- Agiri obeagorik bear negarrez dagon umea baiño?

KAPI.- Negarrez eta goseti. Ori da txarrena. Eta ori nire ardura-pekkoa da.

LIBE.- Zeiñek Zaindu leike?

KAPL.- Ontzi baten, oizko ez dan zerbait gertatzen danean, kapitana da arduradun, kapitana da erabagi bear dauana eta kapitana da baita legerako paperak bete bear dauzana.

LIBE.- Eta emen ilten ba da?

KAPL.- Nire erruz ba da ni errudun. Baiña arduratuko naz galoirik ez loitzen, ez zikintzen batez be errubako ume bat bitarteko dala. Zori, deitu mesedez eri zaiñari.

ZORL.- Koldo'ri?

KAPL.- Mutilzar batek egin ete leike onetan ezer? Bego erizaiña ez al dago?

LIBE.- Bego'rik ez. Garraztuta bizi da. Ez dauka maitasunik.

KAPL.- Ezagutzen?

LIBE.- Nigaz beintzat zitala da.

KAPL.- Atako dagonak, bieztuna garraztuta be, jakin egin bear dau bere zeregiña beteten. Datorrala ainbat lasterren, Bego. Eta zerbait jakin edo argitu arte, ixiltasuna eta zuurtasuna.

ZORL.- Lenakoena: Españak lotu eta begiak argi.

KAPI.- Irugarrena..?

ZORL.- Belarriak garbi.

KAPI.- Ori. Orrek dira, bai, bizitzako oiñarri.

(Zori kanporatzen da).

II IRUDIA

KAPI, LUKI, LIBE ta ANES

KAPI.- Mutu egon zara Anes.

ANES.- Ikusten eta ikasten.

KAPI.- Zure ustez, zer dago tartean?

ANES.- Nik atzamarrik ez neuke ipiniko artean.

LIBE.- Zer dakizue mutilzarrak ume kontuan?

ANES.- Batzuk umerik ezin ekarri ta besteak soberan.

LIBE.- Zurerik beintzat ez da ezagutuko.

ANES.- Zugaz aleginik egin al dot probatzeko?

LUKL.- Mesedez, ixilik egon zaiteze. Errespeturik ez ba da be, lotsa eta lotsarik ez ba da be, lotsa eta lotsarik ez ba da ere, ixil aotsa.

ANES.- Nik, zirikatzen nabenei erantzuten dautset.

LUKi.- Baiña ba dago beste era bat.

ANES.- Kapi, nik zeregiñik ez daukat emen. Gai au ez da gurea.

LIBE.- Zetan agertu zara ba gure gelara?

ANES.- Bear ba da zerbait esatera.

LUKI.- Esan. Emen danok gagoz familian.

ANES.- Baiña itxasoko legeetan, ez al da ala Kapi?

Gero ikusiko gara

(Anes joaten da).

III IRUDIA

KAPI, LUKI ta LIBE

KAPL.- Ume au emen dago.

LIBE.- Ez gabiltz amesetan.

KAPI.- Gure artean, garratz eta gordin. Ez dozue aztarrenik artu edo igarten?

LUKI.- Zer esan nai dozu orregaz?

KAPL.- Zeatz eta meatz. Ez da lenena olako ibilleretan. Geroago be gertatuko dira ziurretik.

LUKL.- Barriro: zer esan nai orregaz?

KAPI.- Askok uste dabe itxasoa zabala eta sakona dala. Eta itxasoak dana iruntsiten dauala edo irunsi leikela.

Norena izan leiken susmorik?

LUKI.- Ez dozue esan norbaitek bere burua uretara jaurti daua-
la?

KAPL.- Ez dakigu uretara bere burua jaurti daunanik. Leikena da,
jaurtitzea, baiña ezin esan giñei.

Jausi eikean edo besteren batek bultz eginda joan. Elitza-
ke lenena. Ori bat da. Orrelako ibillerak ez dira beti atse-
gin zoro izaten. Ain zuzen be gertaera orregaz lotu bear
al da beste au?

LIBE.- Itxura asko emoten dauana da.

KAPL.- Itxuretatik ba dakizu zer gertatzen dan? Esana bat eta
izana bi.

LUKL.- Zerbaitetik asi bear da. Eta nire itauna au da: Zeiñek daki
ain zuzen be uretara jausi zana emakumea zanik? Arabi-
tarrak oraindik euren gonakin jazten dira. Eta emen arabi-
tar batzuk ba datoz...

LIBE.- Onezkero jakin bear zan.

KAPL.- Jendea emen ibilten dan lez, ezelako ardura barik, gaitz.

LUKL.-Alaxe da.

LUKI.- Emen iñor ez da arduratzen besteekaitik. Konpañiak ez
dauka barruko polizirik?

KAPI.- Geroago deituko dogu bidaiari guztiak nire gelatik igaro-
teko, ia emengoa izan eta dan ziur jakiteko be. Polizikoak
be etorten dira. Baiña ez emen, portuetako sartu-urtene-
tan baiño.

LIBE.- Onezkero norbaitek zerbait esan bear eban.

KAPI.- Ona datozenak ez dabe nai iñok ezagutzerik be. Kaletik

- igeska lez etorten dira. Bakoitzak berea eta besteenak or konpon.
- LUKI.- Itxura guztiak ala dira.
- KAPL.- Orrelako asko igaroten dira. Batzuk argitu bai gerora. Besteak itxasoa sakon billatzen dabe.
- LIBE.- Edozelan izan da be, nik esango neuke ume au niretzako opari bat izan dala.
- KAPI.- Zeiñena?
- Ni zurean jarten naz. Zuk zure umerik itxiko zenduke orrela? Eta sakonduta: Nok daki ain zuzen uretara jausi zana emakumea zan , erdibitzeko edo aur egiteko egoanik? Besteren bat ezin izan ete leike?
- LIBE.- Bere agirietan agertu lei.
- KAPI.- Sekula pasaportetan edo bidaietan, argitarako agirietan eskatu da ainbestekorik?
- LIBE.- Baiña igarri egiten da.
- KAPI.- Ontzira datozen andre guztiei goitik bera begira asiko ba nitz, zelako kapitan nazala esango zenduke? Eta polizikoen bat ete naz orrelako kontrol bat eroateko? Iñork onartuko leuke polizidun atsegin ibillaldirik?
- Ez ete da zentzu geiagoz pentsatutakoa, ibillaldi oneitara polizietatik iges egin naiko batzuk etorri daikezala?
- LUKI.- Ori be oker pentsatzea da.
- KAPI.- Baiña leikena da.
- LUKI.- Gugaitik ez dozu esango.
- KAPI.- Ez nabil zu ta ori eta ez a salatzen. Leikenaren ingurua mugatzen baiño.
- Garbi adierazi nai dautsuet.
- Ník, ume au dala-ta, auzi agiri bat bete bear dot.
- LIBE.- Baiña gure alde. Lenbailen egin.
- KAPI.- Legea bete.
- LIBE.- Eta umearena erabagi.
- KAPI.- Oiri iñok agindu barik egingo dot.

IV IRUDIA

LENGOAK TA BEGO TA ZORI

ZORI.- (*Agertuaz, Bego'gaz batean*).

Emen dago Bego gaixozaiña, kapitan jauna.

BEGO.- Zeiñez ekarri dau ume au?

LIBE.- Ez dakigu.

BEGO.- (*Umea aztertzen*) Koitadea. Nun jaioo da, emen?

LUKL.- Jaio ez emen. Agertu bai.

BEGO.- Eta iñok ez dau ezer esan. Iñor ez da etorri gaixo gelara ezer jakin erazten. Iñok ez dau laguntzarik be eskatu. Eta jantziak?

LIBE.- Jantzi ta guzti agertu da emen.

BEGO.- Andra gaixoen bat bereak eta bi igaroten egongo da gelaren batean.

KAPL.- Ala uste dozu?

Eta lagunik ez eban edo ez dau eukiko?

BEGO.- Batek ba daki.

KAPL.- Leike umerik nai ez ebenen familien batena izatea.

LUKI.- Lotsak manperatu dauan neskati birgintzako batena.

LIBE.- Ume bat problema biurtzea eurentzat. Eta guretzat ez. Guretzat askatasuna.

LLIKL.- Zeren askatasuna?

LIBE.- Garrazkeri askoren askatasuna beintzat. Eta aitzaki askoren etena.

LUKL.- Libe, mesedez, emen itxasoan gagoz. Iñok ez dauka gure etxekorik zetan jakin.

BEGO.- Zori, ikusi ziñei berengo sailleko laugarren kamarotean ezer gertatu ete dan?

KAPI.- Gure lako ontzi baten ezin lei iñogaitik txarto pentsatu, ez aztarrenik billatzen asi be.

BEGO.- Ori, kapitana, ezer gertatzen ez dan artean zillegi izan

lei. Baiña emen legea bete bear dan zerbait dago. Legea zapaldu ez ba da be, itxurak ba dagoz.

KAPI - Zori, zuk ba dakizu zeregin batzuk "puenteko aginduak" baiño atsegiñago egiten.

ZORL- Ori zer da, salaketa bat?

KAPI.- Berba erdikarik be ezin egin giñei olgetan?
Joan zaite, ta bigun eta laban itz egiñaz, orretan ondo dakizu-ta...

ZORL- Bai, komeni daneko letaniak. Ora pro nobis.

KAPL- Esan lez, itandu egiezue, osteran pozik dabiltzan, utsunetik artu ete daben, kapitanak osterarik atsegiñena egitea opa dautsela, ezelako kexa barik.

ZORI.- Ez jarraitu. Aleginduko naz.

KAPI.- Baiña uniformeagaz joan, ardura ofiziala dala pentsatu dagien.

ZORI,- Demokratikoago ez da izango alkondara utsik joatea?

KAPI.- Demokrazia eta araudia, legea, noiz asarretu ziran?

(Zorí ba duá).

V IRUDIA

LUKI, LIBE, KAPI ta BEGO

BEGO.- Ume au, lenengotík, gaizotokira eroan bear da.

LIBE.- EZ daustazue kenduko umerik.

BEGO.- Kapitana, ume au ilten ba da, errua norbaitena izango da.

KAPI,- Nirea? Esan, esan, nirea? Zegaitik?

BEGO,- Zeiñena ba? Zein da emen buru?

KAPL- Buru izatea dab-at. Jaube izatea bestea.

BEGO.- Umeak oraingoz ez dauka jauberik.

LIBE.- Ni arduratuko naz. Ni lotuko naz bere jaube. Gu arduratuko gara, ez da ala Luki?

LUKI.-EZ zaite ain itsu, Libe.

LIBE.- Ez al gara osterara onetara etorri, aizeak aldatzen, ainbestean nai dogun aur bat sortzeko zoria lortzen ete dogun, ortarako almena guregan esnatzen eta dan? Ez daustazue esan iñoiz aizeak aldatzea komeni izaten dala sortze arazoan atzeratu gertatzen diranentzat?

LUKL- Ori gurari bat da. Alaxe etorri gara. Baiña umea ez da gurea.

LIBE. Umea, nirea izan ezarren, ama barik dago ta nirea da. Umea zaintzekotan ementxe zainduko da. Ez da gela onetatik iñora eroango. Ekarri bertara bear dana.

LUKi.-Libe, zentzunez pentsatu eta jokatu daigun.

BEGO.- Kapitanak nai daben lez ni arduratu bear ba naz, umearen biziagaz nik erantzun bear ba dot, gaizotokian izan bear da edo ta bear dauna errudun geratu daitela.

KAPL- Ba dirudi, ari betetik dindilizka dagon umearen aitasuna niri emon gura daustazuela.

LIBE.-GU ortarako gertu gagozala ikusita, zegaitik ainbeste traba?

BEGO.- Aurra amaren epeltasuna galtzen asten ba da, ez uste luzaro biziko danik.

LIBE.- Ala bear ba da, lenengotik ontzia portu batera eroaten alegindu.

KAPL- Betetik egun bi bearko gendukez urren dan porturen baten sartzeko. Eta bestetik gu ezin giñei iñungo paperetan agertzen ez dan bizi baten bizia zaindu nairik erbesteko portu baten sartu. Traba besterik ez genduke billatuko eta orretan be egunak egun geiago galdu.

LIBE.- Eta nik ezín ete neike emon ama baten berotasunik? Amatasunaren billa eta gurariz nabillan onek, zegaitik orrelakorik ezin?

KAPL- Zeuk daukazu azken itza, Bego. Zer egin bear da? Gauzak argitu arte bitartekotza oneri emon edo ta ontziaren ardurapean artu?

BEGO,- Niretzat zeregiña da, baiña nire kontzientziari jarraitzeko-
tan, umea nire ardurapean bear da.

LIBE.- Sekula amatasun ardurarik euki ez dozun orrek, zelan aur
bat zure menpe artu nail.

BEGO.-Nik amatasun garrik niretzat auki ezarren, ama askoren
ordezkaritza artzen ikasi dodalako.

Kapitana, ez zalantzan egon. Bai edo ez?

LIBE.- Luki, gizona zara ala ez? Ez dakizu gure barririk? Ez daki-
zu ume nairik gabiltzana? Zegaitik mutu?

LUKL- Onelako gauzak atze itzala ekarri leikie Libe.

BEGO.- Kapitana, ezin giñei umea onela euki. Bai edo ez?

KAPI.- Emon egiozu umea, Libe, Bego'ri.

LIBE.- Ez dau eroango. Neu joango naz gaixotokira. Neuk artuko
dodaz bear diranak. Neuk zainduko dot ementxe, iñoren
ardura barik. Umea nirea izango da.

KAPL- EZ dautsut ukatzen umea zure izan leikenik. Baiña ume
onetan nik erantzun bear dot bere biziagaz. Ni naz ume
orren ordeko eta zaindari.

VI IRUDIA

LUKI, LIBE, KAPI, BEGO TA ZORI

ZORL- (*Sartuaz*) Kapitana...

KAPL- Uniformeagaz joateko ez dautsut agindu?

ZORL- Ez naz eldu agindutakoa betetera.

KAPL- Zegaitik ez?

Ba dakizu ona naizela besteak on diran artean. Baiña ka-
pitan lez be aginduak betetea bear bearrezko ikusten do-
dala.

ZORI.- Ala zan nire asmoa.

Baiña bigarren pilotoa deika euki dot. Atsegin ostera one-
tan datorren emakume batek emonda, Kapitanarentzat

prisako karta bat eukala esanaz. Ba dakizu "puentea" ezin leikela iffor barik itxi. Origaitik bialdu nau.

Auxe da.

KAPL.- *(Kartazala zabaltzen dau eta barruan beste bat igarten da)*

(Beretzako orritxoak irakurri ondoren)

Zure abizena zein da, Iturri?

LIBE.- Bai Iturri.

KAPL.- Zuretzako da beste au.

UBE.-*(Larri)* Niretzat? Ezer gertatzen da ala? Zoritxarren bat etxean?

KAPL.- Ez da etxeko karta, emen barrukoa baiño.

LIBE.- *(Dardaraz zabaldu eta irakumaz)*

Ene ba! Ikusi be ez dot ezer egiten. Bat bateko gertaera onek kirio (nerbio) guztiak aidean ipini daustaz.

Irakurri egizu, Luki.

LUKL.- *(Irakurten)*

Libeandrea

Nire egunak eldu dira.

Familitik igesi, erritik eskutauta, nire goraberarik iñok jakin ez dagian, itxas ostera onetan sartu nitzan, guzurretako izenez.

Ez naz ausartu zuen aurrera agertzen, nai ta ni bein-bein-goz arpegi emon edo ez zalantza askotan ibili eta zuek biok begien aurretik kendu ez.

Atzo zure gelan sartu nitzan, ez lapurreta naian, eta zure kartera artu. Baiña laster eukiko dozu zure eskuetan eta bertan bein zure senarrak emoniko domiñatxoak aurkituko dozu, Gurea izena daukana. Nire izanarren, gurea izango ez danarentzat...

(Amorruz esku artean zimurtzen dau karteak, eta zarataka).

Andra txotxin aluen batena!. Ze saltsa eta ze naste dabil emen?

Nundik eta zelan dator berau?

Ezdot nai irakurri...

Zein da izenpetzen dauana?

(Paperak zabaldu eta izenpea ikusi ta barrero zimurtuaz)

Consolatrixaflictorum...

Guzurtien bat. Burua galdu dauan txotxiñen bat. *(Karta-jaurgitzen dau).*

LIBE.- *(Karta artzera makurtzen da eta Luki'k bultz egiten dau-tsa. Kendu nai).*

Karta au niretzat dator. Kapitan jauna, ez dator ba niretzat? Nirea da. Ez daukazu eskubiderik apurtzeko.

ZORL- *(Karta artu ta Kapi'ri emonaz)*

Kapitana, au aukeratu zaitue bitarteko. Zuk daukazu eskubidea.

KAPL- Irakurteko ez.

Nik egin daidana, mesedeari erantzunaz, jaubeari emotea da.Or amaitzen da nire zeregiña.

LUKL- Karta ori izen bakoa da. Anonimu bat. Sorgin batena edo aker batena izan lei. Zentzundun batena ez beintzat.

LIBE,- Gorde egizu, kapitan jauna. *(Negarrai ezin eutsiz, berbarik ezin esanez).*

Eskatuko dautsut egunen baten.

Bego, eroan egizue umea ba... gaur ez dakit zelan asi ez zelan ekin.

Au da au, atsegin ibillerako oparia...!

KAPL- Itxasoan iñun baiño obetc ikasten da, Bego, ekaitzari aurre emoten, nai ta ezkoa dalako...

(Kapi, Zori eta Bego ba duaz.

Luki Libe'gana urreratzen da, baiña onek, bultzada bat egin, lepoa emon eta negar zaratatsuan asten da).

III EKINTZA

I IRUDIA

LIBE TA BEGO

LIBE.- *{Negarti, argal eta erdi gaixo}*

{Tarteka, zlmurtutako karta leundu eta irakurten}

"Libe andrea:

Nire egunak eldu dira.

Familitik igesi, erritik eskutauta, nire goraberarik iñok jakin ez dagian, itxas ostera onetan sartu nitzan, guzurretako izenez.

Ez naz ausartu zuen aurrera agertzen, nai ta ni bein-bein-goz arpegi emon edo ez zalantza askotan ibili eta zuek biok begien aurretik kendu ez...

BEGO.- Karta ori nobelarik irakurgarrien biurtu dozu.

LIBE.- Ointxe esan dozu egia. Nobela bat. Ori da izan be.

..."Atzo zure gelan sartu nitzan. Ez lapurreta naian, eta zure kartera artu. Baiña laster eukiko dozu zure eskuetan eta bertan bein senarrak emoniko domiñatxoa aurkituko dozu, GUREA izena daukana. Nirea izanarren, GUREA izango ezdanarentzat..."

BEGO.- Erdaldunak ba dakizu zer esaten daben? A lo hecho pecho.

UBE.- Mesedez, Bego!

...Erdibitzeko ordua eldu da. Laster jaioko da nigandik zuretzat eskintzen dautsudan umea, ba dakidalako ume bílla zabiltzala. Eta zuri eskintzen dautzut zuk maite dozun gizon berberaren semea dalako... *(barriro)* zuk maite dozun gizon berberaren semea dalako. *(Ixiunea, negarti)*.

...Ez alperrik nire billa etorri. Itxasoaren sakonetan gaitz

billatuko nazu. Parkatu egiozu zure senarrari, azken baten gizona da-ta.

...Maite egizu umea eta maite egizu zure familia.

Consolatrix Afflictorum.

BEGO.- Obe gendun karta ori lenengotik aizeak eroaten itxi ba gendu.

LIBE.- Kontu egin, emen dagola nire bizi guztirako muiña.

Zellan dago umea?

BEGO.- Txarto.

LIBE.- Ez dauka obarik?

BEGO.- Egiten dauanatzarrerako.

LIBE.- Biziko da?

BEGO.- Ordu batzuk. Txori kuma lez. Amataten dua.

LIBE.- Ama izan barik amatu nabe eta senarra eukita senarrik ez daukat.

BEGO.- Ezkonduen gauzak dira orreik.

Ostera onetan, ziur egon, erdiak baiño geiago, euren etxe-tako estuntzetatik igeska dabiltzala.

Eta ez uste gizonak bakarrik. Andrazkoak be ba dakie zezenak toreatzen.

LIBE.- Gu ez giñan orrela etorri.

BEGO.- "Gu" zeintzuk zarie, zu eta bera edo ta bera ta zu?

LIBE.- Senarra eta ni, bai.

BEGO.- Eta au? *{Umeagaitik}*

LIBE.- Nik ez nekian ezer.

BEGO.- Norbaitek jakingo e ban

LIBE.- Ez zaite ain gordin eta zital ,Bego.

BEGO.- Niz ez dakit ardauari urik jaurtitzen.

LIBE.- Mesedez. Maitasun premiñan nago ta ez orrela jardun.

BEGO.- Nik maitasun ordezt kontseju on bat emon neiketzu: Zure lako egoeretan batek baiño geiagok eskartu daustena.

LIBE.- Edozer izan leike on bakardade au etetekotan.

BEGO.- Baregarri pastilla bat artu egizu... eta, lengoak, lengo, luze begiratu aurrera.

LIBE.- Niretzat aurreak ez dauka etorkizunik, zoritxarrez.

BEGO.- EZ jakin dantzan egitekoa euki ziñeiken be.

Ekatzu karta ori.

LIBE.- Zetarako?

BEGO.- Erre edo apurtu dagidan.

LIBE.- Oraindik ez.

BEGO.- Zegaitik ez?

LIBE,- Karta au baliotsu izan daikedalako umea ontzitik nire jautetasunez atarateko.

BEGO.- EZ orren ametsik euki. Oraindik ogetak egun bear doguz itxasoan. Umeak gaurko egunik ez dua bizi igaroko. Ala da beintzat nire iritzia.

LIBE,- Ene!. Ta ezer ezin egin lei bere alde?

BEGO.- Zuk ez. Zelan esan ziñei zurea ez dan bat, zurea dala, eta berea dan aita ixilik egonda?

LIBE.- Karta onetan niri eskintzen dausta.

BEGO.- Karta orrek umearen aitaren emazteari eskintzen dausta.

Or ba dago kakua.

Ainbestetan irakurri ta ezin buruan sartu?

LIBE.- *(Irakurriaz)*

...zuri eskintzen dautzut, zuk maite dozun gizon berberaren semea dalako.

BEGO.- Or ez da agertzen eta esaten zurea danik. Garbi dago ori. Zezen suskoa da or izentatzen dana.

Umea dagon eran kapitana da karta ori testigutzat artu leikena ume ori, errubako ume ori, aitatasunez legeztatze-ko. Kapitanak ba dauke itxasoan orretarako aiña eskubide. Bestela, il ondoren, uretara jaurtiko da, lore bi berari eskeini ta kittu.

LIBE.- Uretara jaurtzi? Ez, mesedez!

BEGO.- Uretan ez al da aingerurik bear?

LIBE.- Eta aitatasuna emon ondoren?

BEGO,- Ilten ba da gorde lei kamara baten, portura eldu arte.

LIBE.- Eta gu, umerik ez dogula, mundu guztiak dakian lez...
umea baten jaube leorreratu? Ori izango da lotsagarriena!
Ildako ume batena, gaiñeral.

BEGO,- Bakoitzak daki ori zelako argiagaz argitu.

(Pastilla bat, urpitin bategaz eskeñiaz).

Artu egizu Beratu zaitez.

LIBE,- Lotan ipini gura nai?

BEGO,- Al dala pastillarik ez da artu bear. Baiña oraingo au zure
onerako da.

II IRUDIA

LIBE, BEGO TA ZORI

ZORL- *(Sartuaz)* Zelan dago txikia?

BEGO.- Gero ta aulago.

ZORL- Errukarrial.

BEGO.- Errukarri ez. Errurik bakoa.

ZORL- Kapitanak diño zerbait egin bearko dala.

LIBE. Zer egin?

ZORL- Orrelako gertaera baten kapitanak lenengotik zabaldu
bear izaten dau agiri-zuzia (expedientea)

LIBE,- Ni agertuko naz amatzát.

ZORL- Ori eziñekoa da.

BEGO,- Amordea esan bearko litzake.

LIBE.- Niz ez dot nai iñoren amorde izan.

ZORI,- Ama? Noiz erdibituta? Gauzak diran lez eta kitto.

LIBE,- Eta aita?

ZORI,- Kartak ez al diño zein dan?

BEGO.- Solterotako ume lez agertu bearko da.

LIBE.- Ori ez. Ni ez nitzan ezkondu, dakidala beintzat, aur jaube
zan gazte bategaz.

Lau urte dira ezkondu giñala.

Eta umea orain dator.

BEGO.- Ori ala da.

LIBE.- Eta berak ukatu egiten dau.

BEGO.- Egon ete da iñor orrelako gartaera baten lenengotatik
pekatari agertu danik?

Ezagutu egin bear dira gizonak.

ZORL- Bai andrak be, birgin kalean eta sorgin akelarretan.

BEGO,- Luzegi zuaz, Zori.

ZORL- Metro-zintak lez. Zelan eskatu ainbat zabaldu.

BEGO.-Emen berau, portu bakoitzean bategaz gitxiegi daukana.

ZORI.- Olgetak itxi beste baterako. Serbitsuan nego. Nun dago
Luki?

LIBE.- Zetarako nai dozue?

ZORL- Kapitanak ikusi gura dau.

LIBE.-Arpegiko narrua aldatzen egongo da.

BEGO.- Barruko sentimenik ez dauka iñok zetan jakin, Libe.

LIBE.- EZ dot beste munduko gauzarik esan.

ZORL- Iñok ez daki?

Ni aleginduko naz billatzen

Baiña, mesedez, ekatzu kartaori.

LIBE.- Zetarako?

ZORL- Kapitanak paperak ziurtasun osoagaz eta al dala ondo
oiñarrituta egin dagiazan. Orretan zeatza da eta bildurtia.

LIBE.- Eta umea osatuko ba litz?

BEGO.- Ikusi bear, senarra ta zu zelan konpontzen zarien.

LIBE.- Kapitanari esan, karta orregaz ez dauala agintzen beste
iñok, neu izan ezik.

Eta barrero nigan euki nai dodala, bizitzan artu dodan
egizko lenengo eskintza baten gutuna dalako.

(Zorijoaten da).

III IRUDIA

BEGO ta LIBE

UBE.- Ikusi nai dot.

BEGO.- Baketan itxi egiozu.

LIBE.- Bere arpegitxuaren ir'udia nigan bizi-bizi sartu... neska dala ba dakit.

BEGO.- Alaxa da bai.

LIBE,- Ezin naz egon ikusi barik.

BEGO.- Maitatzen ikasiko dozu ta gero...

LIBE.- Ori berezkoa da.

BEGO.- Baiña zetarako, ilko ba da?

Ibili zaitte ortik zear, aizea artu, gauzak aztuten alegindu...

UBE.- Ezin nei. Ez dot sekula aztuko gertaera au. Gero ta minberatsuago nago.

BEGO.- Aaztu ez da be, beste era baten artu. Ez zara eta izango be ez lenena ta bakarra onetan.

Eta ba dakizun bizitzan zazpi bidar eta geiago be parkatu egin bear dala.

LIBE.- Negar bai, negarrik daukadan artean. Baiña parkatzea gaitz da. Eziña lez ikusten dot.

BEGO.- Azken baten zu zeu ez zara errudun. Iñok ezin lei zuri orretaz ezer esan.

LIBE.- Baiña bera eta ni, biok, bat izatea eskiñi gendun. Biok bat. Geureak bakarrik. Kezkak eta ardurak bionak, geureak, eta maitasunak be bai. Eta maitasunaren eskabi-deak be alkarrenak eta alkarregaz.

BEGO.- Nik ez dakit orrelako barririk.

LIBE.- Sekula ez neban irudituko senarrak orrelako azpikeri zikinetan ibiliko zanik, berak dakian lez sekula ez dautsadala ezer ukatu-ta.

BEGO.- Askotan bat zenbat eta zintzo eta lotuago, bestea azkeago.

LIBE.- Eta umearen ama... Zegaitik ez zan etorri negana?

BEGO.- Sinistuko zeuntzan? Eta parkatu be bai?

LIBE.- Parkatu ez? Areri bai, nekez, baiña parkatzen jakingo neban. Orain be nik naiago neuke ementxe ikusi.

Bildur naz, zorabio baten bere burua itxasora jaurti ba eban be... nire amorruez, ni madarikatzen ittoko ez ete zan.

BEGO.- Nik bestera pentsatu izan dot.

LIBE.- Zelan zuk?

BEGO.- Emakume zintzo bat izan eikiala; bear ba da zure senarrari bere zirikaldietan lepoa emoten jakin barik ibili zana... baiña gero, bion egoera jakinda, zela ala adoretu eta ama izatera eldu zana.

LIBE.- Gaitz da orrelako bat sinistea.

BEGO.- Bestelako emakumeren bat izan bat litz... bear ba da alegindu egingo zan umea galtzen. Eta ordeez, arek bizia artzen lagundu eutsan.

LIBE.- Ori be egia izan lei.

Eta nor zan ez dakit.

BEGO.- Libe, onetan aolku bat emongo dautsut. Ez zaite alegindu be nor zan jakiten. Egin kontu zuretzat beste mundukoren bat izan zala ta kitto. Min gitxiago eroan ziñei, askotan, ingurukoak ikustean, gogamen itzalaz eta garrazak barrizatzen ibilí barik.

Berak ba diño kartan nor zan?

LIBE.- Cosolatrix afflictorum.

BEGO.- Naigabetuen pozkarri, ez da ori? Naiko da berori. Sinistu egizu bere borondatean.

LIBE,- Ikusi gura neuke. Zegaitik itxi ez? Mesedez, Bego. Ez dausat ezer egingo. Ikutu be ez. Ikututxu bat bera ez. Begiratu bakarrik. Ikusi.

BEGO,- Esan dautsut osagillearen agindua dala. Nik bai ikusi bear dot.

{Bego'k ate batzabaldu ta barrura sartzen dá}.

IV IRUDIA

LIBE BAKARRIK

LIBE. - *(Bere artean naigabez eta kezkat)*

Ezin sinistuta nabil.

Ategin ostera batera etorri ta ametsik be egiten ez neban ume baten jaube egin...

Eta senarra galdu...

Usoak lez gebiltzan biok.Lau urte ezkondu giñala ta etxe bat osotzeko bear dana ekarri nairik. Baiña nigaz pikoka ta beste bategaz sakonean... sinistu ete nei ori? Gure eskintza eta promesa guztiak orretan?

Sinistu ete nei nire Luki'k ainbestean atzipetu nabena, tartetako garrazkeri batzuk ezik, gure artean ezer euki ez da?

Gaiñera, orain ezin ukatu nik akatsen bat nigan ez dagonik. Ni errudun?

Ez ume ta ez senar, zer egin neike nik bakardade baten?

V IRUDIA

LIBE ETA BEGO

(Bego agertzen da)

LIBE.- Zelan dago?

BEGO,- Len baiño obeto.

LIBE.- Biziko da?

BEGO.- Obera egin dau beintzat.

LIBE.- Benetan?

BEGO,- Zegaitik eta zetarako ez dana esan?

LIBE.- Ametsik egin neike?

BEGO,- Umearen biziari buruz... Umeak oraintxe ílten eta berea-la olgetan, esaten da.

Baiña... ez dozu pentsatu amets egin al izateko, senarrak ez dauala ukatu bear berea danik?

LIBE.- Ori. Ala izango da. Eta len ukatu egin dau.

Kartan esaten zana guzurra dala... azpikeria dala...

BEGO.- Zuk sinistuko zenduke berea dala?

LIBE,- EZ eidazu esan olaorrik. Ez dot nai ezetara be sinistu.

BEGO.- Eta egia ba litz?

Zegaitik etorri da bestea zuri eskintza eta bere arrazturik be itxi nai ez da, mundutik igesten?

LIBE.- Baiña orain a galdu zan.

BEGO.- A galdu zan, bai, gixajoa. Zuk ez dakizu ezer eta gizonak ukatu. Egoera onetan zer egin leike kapitanak?

LIBE.- Nai ta ez kapitanak ziurtatu bear dau?

BEGO.- Berak esaten dauana, gero be alaxe izateko gaiñera.

Pentsatu egizu, Libe. Begiratu atzera. Ez da orrelako le-nengo gertaera. Eta gaur burrukan eta bost egun orduko barriro danak aztu nairik.

Gaur gizona edo emazteagaitik, bata ta beste berdin, sekulakoak esaten, eta egun barria argitu ordurako alkar zuritu eziñik.

Orrelako bat gertatuko ba litz, zer?

Umea, bizi ezkeru, leorreratzean, beste iñora barik, ume-zurtzen etxeren batera eroan bearko litzake.

Zeiñen erruz? Konturatzen?

VI IRUDIA

LIBE, BEGO TA ZORI

(Zori sartzen dá)

LIBE.- Atzera ekarri daustazu nire karta?

ZORL- Atzera ezer ez. Kapitanak bear dau eskuetan. Ez uste geratuko danik biurtu barik. Paper zarrrik ez dau atsegin bere kamarotean.

Barri bat dakart.

LIBE.- Lengoa gitxi zan eta barri bat? Bizi da ala lengoa?

ZORL- Aregaitik zabiltz? Koitadea, nun ete dago onezkerol.

Oraingo au zure kutunarena da.

LIBE.- Ez zaitetz etorri adar joten.

ZORL- Ekarten etorri naizan lez, bardin joan neike eroaten.

LIBE.- Zeiñek emon dautzu?

ZORL- Esan dot. Berak.

LIBE.- Ba daki nun nagon?

ZORI.- Itxuraz bai.

LIBE.- Eta bera?

ZORL- Consolatrix lez egon zanaren kamaiñan.

LIBE.- Berbetan ez daki, kartetan ekiteko?

ZORL- Nik eskatu daustan mesedea egin dot. Azkenean eskerrik
be ez artzeko.

LIBE.- Ekatzu.

*(Libe'k bere karta irakurten diardun artean, Zori eta Bego,
barruko atetik umeari begira ta kontukontañ igarriko dirá).
(Irakurri ala, bere destaiñak esanaz).*

Maite: *(Guzurti...!)*

Ba dakit minduta zagozana. Ulertzen dot.

Egia autortuko dautzut, inguruka ibili barik. (Ien ukatu ta ...)

Eskiñi eutzuen umea, neurea da *(Odolbero!)*.

Lotsa eta miña, biak daukadaz autortzean. Gu izan giñan-
nak izan, zuk maite ninduzun aiña maite... ta ala ta be jau-
si nitzan. (Ien laprast, orain jausi).

Nik ez nekien gure ostera onetan agertuko zanik.

Ba nekien, bai, denboretara eltzeko egoala.

"Agindu neutsan esango neutzula. Konponduko giñala;
bere entzumen txar barik, ez-jakiñean erdibitzen lagundu-
ko geuntsala ta miñez, baina makurtzen zan guri eskin-
tzera.

Beti esatekotan, ez nitzan ausartu zuri ezer esaten.

Jakin eban berak, ba ekien, ostera onen barri.

Nik uste dot bere asmoa gure aurrean agertzea zala, baiña be ez zala ausartu gugaz alkartzen.

Nirea da errua.

Orain umeari aitatasuna emon bear dausat. Ala egin ez-kero, umea guretzat geratu lei. Ezin nei nik sortu dodan bat...aitatasun barik itxi.

Lagundu egidazu.Libe.

Bear ba da ume au, guk auki ezin al izan doguna, gure zoriona leike. Zure egoera larria dala ba dakit...

Parkatu eidazu,. Biotzez eskatzen dautzut, betirako zintzotasunaeskeñiaz:

Nai ta zuk uste ez, beti zure

LUKi.-(Bai, zurea, ortik ibilita gerol).

Umezurtz naz.

Sekula ez dot bakardaderik ain astun ezagutu.

Nire aita ta ama bizi ba lira, zer esango ete eusten?

(Negar muxingak).

Eta nundik nora dabillan ez dakigun aizta?

Umea artzeko gertu nago. Nai ta nirea izan ez. Bai, umea artu nai dot. Niri eskeñi eusten. Nirea da legez.

Baiña umea zelan artu, bizi dan bere aitari uko eginda?

(Kartako esaera gogoratuaz)

"Biotzez eskatzen dautzut betirako zintzotasuna eskeñiaz..."

Bein ollotegi batera joaten ikasia dan azeria, gelditzen ete da aske dagonean?

(Bego ta Zori atetik agertzen dira).

•BE.-Ta? Zelan dago?

ZORI.- Lo.

LIBE.- Il da?

BEGO.- Umeak lo egin bear dabe biziteko. Eta lo dago.

LIBE.- Itxaropenik euki nei?

BEGO.- Artu bear dozun edo zeinken erabagia, besterik ezean, artzeko eran zagoz.
Kapitana dator.

VII IRUDIA

LENGOAK ta KAPITANA

KAPI.- (*Sartuaz*) Zori, "puentean" baiño zeregin obeago txalopan?

ZORI.- Kapitana, zuzendu bearreko txalopak ez dira bakarrik itxasokoak izaten.

KAPI.- Umetxoa zelan?

BEGO.-Estutasunen ondoren, orain obeto. Lo.

KAPL.- (*Libe'ri*) Erabagi dozue ezer?

LIBE.- Zetaz?

KAPL.- Zuen egoera bedeinkatu onetzaz.

Ni ez naz iñor zuen gauzetan sartzeko. Nik ezin nei iñoren kontzientzirik aztertu eta gitxiago estutu edo beartu. Baiña nik ezin nei egun geiago galdu, gertaeren agiria txalopako egunkarian sartu barik.

Bakoitzak bere bear-izanak beteten alegindu ezkeru, ez dago iñorentzat burukomiñik.

LIBE.- Ene jauna! Itxi eidazu egun batzuk, egun batzuk baiño ez, osteru onetan egin bear doguzan egunak...Kirio guztiak aidean darabildaz. Ez dakit ez nun nagon, ez zetan nabillen.

KAPL.- Zelan sartuko dot nik zurea ez dan ume bar zure lez, zurea dan senarrik artu nai ez ba dozu?

LIBE,- Zuk zer egingo zenduke, nire gauzan, dakizuna zuri gertatu ezkeru?

KAPL.- Nik, beingo baten, biotzean min artuta be, amore emon eta bakeak egin.

LIBE,- Bai baiña zu itxastarra zara ta zuen bizimodua berezia dalako.

KAPI.- Andrea, zeuk ez uste, esaten dan lez, andrak etxean lotu eta portu bakoitzean beste bategaz ibíltzen gareanik. Ori itxastarrak lez egiten dabe leortarrak be. Ori norberegán dago, eta ez ogibideko arduretan.

LIBE.- Ene ba da! Au da egoeraren larrial.

KAPL.- Maite-miñak zirt zart eten bear dira.

LIBE.- Eta barriro lengo bidera joko ba leu?

KAPL.- Adarrak erakusten ikasi.

la, nik paperak bete bear dodaz. Orretarako bion erabagia jakin bear dot.

LIBE.- Orain edo ta gaur ain zuzen?

KAPL.- Gaur eta laster.

Etorri daitela senarra bertora.

Nik ez dot besterik nai, zuen gogoá ezagutzea baiño. Zuek zelan agertu, orrela beteta geratuko da nire egin bear eta ziurtapena.

Eta ezezkoa ba da, zeuok atara kontuak, ia zelan konponduko zaren gero, ibillaldi au amaitzean, erriko agintariekaz. Gertu?

LIBE.- Zetarako gertu?

KAPI. Aurrez aurre alkarri eskatu bearreko eskabide ta itaunei (galderei) erantzunak emotera.

Zu, Zori, alegindu zaitetz Luki onen senarra bertara iker ten. An zarealakoan emen.

ZURL- Aleginduko naz.

{Kanporatzen astean}

Ez dago alegindu bearrik. Emen dator bera.

VIII IRUDIA

LIBE, BEGO, KAPI, ZORI, ta LUKI

(Luki agertzen da)

(Luki ta Libe'k begirakada lotsakor eta mintsuak dagiez alkarri. Kapi'k, alde banatako aulkiaz aurreratuz:)

KAPL-Jezarri, mesedez.

(Zori eta Bego'ri) Eta zuek be geldi, lekuko lez. Emen ez dago ziñik egin eta artu bearrik. Itxas-berba bai. Emen esan edo entzun leikena, bertan galtzen da.

Ba dakizue, kapitan naizenez, eguneko goraberak idazte-ra beartuta nagola.

Emen gorabera larri bi dagoz. Norbait, ez dakigun nor, ez eta zelan, itxasoan galtzea bat. Ume bat jaube barik agertzea, beste bat. Ume jaiobarria, dakizuenez.

Beste gauzak, asarre, mutur-joko eta abar, gizon lez miñez ikusiarren, ontzi onetako kapitan lez ez dira nire ardurako. Nire itaunetako bat au da:

Egizkotzat artzen dozue jaiobarriagaz batera aurkitu dan karta ori?

LIBE.- Nik kartarik ezin nei ukatu, neuk daukadalako.

KAPL- Zuk Luki?

LLIKI.- *(Nekez)* Bai.

KAPL- Zeiñek idatzia da?

LIBE.- Consolatrix afflictorum. Ez dakit nor dan.

KAPL- Zuk?

LUKL- Nik ba dakit. Oraingoz ixillean gorde nai dot. Pekatutzat artzen ba da, or dago, baiña ez dago zetan pekataririk salatu.

KAPL- Or esaten dan eta gugaz daukagun jaiobarriari aitatasuna emoteko gertu? Gertu, orren ondoren ta guzti?

LUKL- Aitatasuna emon eta gugaz geratzen ba da, bai. Baiña aitatasuna paperetan eta gero umezurtzen etxeren batera eroatekotan, alperrik dala uste dot.

KAPL- Eta zuk, Libe?

UBE.- *(Zalantzan)* Nik...nik...*(negarrari dario)*.

KAPL- Ba dakit zuretzako gogorra izan leikela.

UBE.- Zelan ukatu...neuk esateko igarri be barik, maitatzen asia ba naz?

KAPL- Orrek esan gura dau gertu zagozela biok alkertzeko.

LIBE.- Orrek esan gure dau ni ez nazala pekatari; nik ez dodala ezer egin gure ezkontzako lotuera eteteko.

Eta umea gugaz gelditzen ba da... ni ama baten maitasunak emotera gertu negola.

KAPI,- Denboraleak denborale?

LIBE.- Igaroak igaro.

KAPL- Zuen artekoak gero argituko dozuez bion artean. Baiña ume bat dago jokoan... eta ez zaitzeze ibili olgetan.

Ume baten jaiotza adieraziko dot paperetan, ez da guzurra ta. Aitatasuna be emongo dautsagu. Paperak legez agertu al izango dozuez auzitegian.

Eta izena?

LUKI.- Bere ama zanaren guraria bete daigun: GUREA. Orrek esan gura dau:Berea, nirea ta zaindu bear dauanarena.

KAPL- Danok, obeto esanda, biok orretan?

LUKL-Aladiñot.

LIBE.- Bai, Gurea.

KAPI.- Orain beste arazoa.

Txalopatik bere burua uretara jaurti ebala uste dogunaren arazoa. Uste dozue umearen ama izango zala?

LUKL- Kapitana, umearena egiña dagon ezkeru, ez litzake obeto gertaera bat eta bestea ez alkartzea?

KAPI,- Zelan?

LUKI.- Umearen jaiotza eta gurasoak aitatu... eta bestea, beste gertaera, soil bat lez, bata besteagaz zer ikusirik iruditu barik agertzea. Ezin leike? Esateko, burua galdutako norbaiten egitada lez azaldu...

KAPL- Leikena da. Uretara jaurtiteko, ez leuke bere semea izan bear. Ziur ori.

LUKL- Ez da lenena izango, eta azkena be ez orrelako gertaera bat.

KAPI,- Zoritxarrez ez.

LUKL- Osterako agiria ta txartelean, ze izenakaz etorri zan? Consolatrix afflictorum? Ba Atsekabetuen Pozkarri izena jarri

egiozu ta kitto. Iñon ez daki nungoa zan. Ez dauka zetan jakin be. Zu ez zara polizi bat. Zu emengo kapitan zara eta paperetan datozen lez ezagutu bear dozuz emengo ibiltariak. Ez da ala?

KAPI.- Ala da bai. Eta ala ezik, gaur zuek alkartzearen alde dagidan lana onen antzera, etxeetan nasai dagozan andre edo gizonen lotsagarritzko, senar edo emazteen bizi us-teltzat salatzeko egin bearke neukez.

Eta ni, egia da, ez naz ortarako, ez naz ontziko kapitan baiño. Bestetan bakoitzak bere kandela zaindu dagiala.

LUKi.- Berba emoten dozu orrela joango dala?

KAPL.- Ez daukat birritan zetan emon.

LUKL.- Eragozpenik bai, Libe, emen danon aurrean nire aitorten zeatz eta egitsu bat egiteko?

LIBE.- Bego eta Zori be ixilpekkoa gordetera makurtzen ba dira...

ZORL.- Gu, Kapitanaren agirietan, lekuko (testigu) mutu izaten gara. Agiria izenpetu ta daroala itxas aize zakarrak esana.

BEGO,- Ni be osalarien sekretuz lotua nego.

LUKi.-Orreladala...

Ara. Sei urte dira ezkondu giñala.

Ordurako Libe'ren gurasoak illak ziran.

Aizta bat eukan Akrikako konbentu baten lekaide, ta a jantzia eskegi ta kaleratu zan. Baiña bertan jarraitu lanean. Ez zan erritik agertzen. Nik, nire merkatal ostera baten, ango uri baten ezagutu neban.

Ba zenkien, ez da ala, Libe?

Orain zortzi illabete inguru barrero an ikusi giñan. Gure arteko bizitzako naigabeak agertu neutsazan. Berak ez eban sinisten bere familian, bere aizta bat, amatu eziñiko iñor eikeanik.

Orrela ekian ume billa gebiltzala, ume garra gendula, nai gendula nunbaitetik baten bat artu, baiña gaitz zala, ia eziñezko. Olgeta benetan asi giñan eta bera an egoela beintzat agertzen ba zan ume bat eskintzeko, gure arteko bake eta familiaren mesedean. Angotar batena izan ezke-

ro, baltza izango zan. Ori ez gendun nai. Zuria izateko... nor? Eta...or jausi giñan.

LIBE. Umea nire aizta Konsuelorena dala? Zelan esan zeinke ori? Probarik bai?

LUKL- Ara, bere monja sartu zanean, amak emon eutsan somiña. *(Erakusten dautsa, txikito bat, izen da guzti).*
Sinisten?

Orduan nik emon neutsan berak umeagaz batera itxi dauan GUREA izenekoa.

Ori be, ainbestekorik pentsatu barik, orrelakorik gertatutko ez zalakoan eskeiña zan.

LIBE.- Eta zelan etorri zan gure artera?

LUKL- Zazpi illebetedun egoala jakin nebanean, gure uriburura ekarri neban... zugaz egiazko autortza bat egin eta gauzak konpontzeko asmotan. Egunak aurrera ta lotsak geiago egiten euskula konturatuta, ostera onetara ekarri neban, nik ordainduta, alik eskutuen ibilteko agindupean.

Ori bera falta dalako, sinistu edo ez, alaxe dala zin dagit.

LIBE.- Nik beintzat, gaur gaurkoz, nekez sinistu daikedana da.

LUKL- Geratu zaitez bere domiñeagaz. Sinistu eidazu.

KAPL- Ez daukat zetan jakin geiagorik. Bizitza misterioz betea da.

Bakoitzak berea, bere berezia gaiñera.

Orrela dala, Libe, zeure odola ikusi daikezu umeagan.

Artu egizue umea. Eroan zeuon gelara eta itxas aizeak indartu dagiala zuena izango dan umetxoa eta guk be gogoratuko dogun GUREA.

AMAIA

